BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

645

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 2koa, Hezkuntzako sailburuordearena, zeinaren bidez musika-irakaskuntzak ematen dituzten ikastegi pribatuei 2021eko dirulaguntzak ematen baitzaizkie, Musika-ikastegi pribatuetarako eta musikako zentro baimendu profesionaletarako dirulaguntzen deialdia egiten duen Hezkuntzako sailburuaren 2021eko uztailaren 27ko Aginduari jarraituz.

2021eko irailaren 6an argitara eman zen Hezkuntzako sailburuaren 2021eko uztailaren 27ko Agindua, zeinaren bidez deialdia egiten baita musika-ikastegi pribatuei eta musikako zentro baimendu profesionalei dirulaguntzak emateko, 2021eko ekitaldirako, hain zuzen ere 2020-2021 ikasturtean izandako kostuak partez finantzatzen laguntzeko.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak ebaluatu ditu aurkeztutako eskaerak, aginduaren 10. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz eta, betiere, jarduketa guztietan errespetatuz oinarri arautzaileetan eta indarreko araudian dirulaguntzak emateko eta kudeatzeko ezarritako prozedura. Ebaluazio horren emaitza ikusita, Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak –horretarako izendatu baitzen aipatutako artikuluarekin bat etorriz– ebazpen-proposamena egin eta helarazi zion Hezkuntzako sailburuordeari, hautaketa-prozesuan onartutako eskaerei dirulaguntzak eman eta ukatzeko.

Hezkuntzako sailburuordeak proposamena jaso ondoren, eta aginduaren 12. artikuluan xedatutakoari jarraituz, sailburuordeak berak ebatziko ditu eskaerak eta erakunde interesdunei jakinaraziko dizkie. Horretarako, sei hilabeteko epea izango du gehienez, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Adierazitako horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– I. eranskinean zerrendatzen diren erakunde onuradunei ematea musika-irakaskuntzak ematen dituzten ikastegi pribatuei zuzendutako dirulaguntzak, I. eranskinean bertan zehazten diren zenbatekoen arabera, 2020-2021 ikasturteko kostuak partez finantzatzeko, betiere Hezkuntzako sailburuaren 2021eko uztailaren 27ko Aginduaren 12. artikuluarekin bat etorriz, eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren proposamenez.

2. artikulua.– II. eranskinean ageri den erakunde eskatzaileari ukatzea dirulaguntza, 2021eko uztailaren 27ko Aginduaren 5. artikuluan ezarritako parte-hartze betekizunekin bat etorriz, eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariaren proposamenez.

3. artikulua.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea, herritar oro jakitun egon dadin.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Gainerako betekizunei dagokienez, kontuan hartuko da Hezkuntzako sailburuaren 2021eko uztailaren 27ko Aginduan xedatutakoa.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa ezar dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena ikastetxeei jakinarazten zaien egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 2a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

I. ERANSKINA

% 25EKO EDO HORTIK GORAKO UDAL-FINANTZAZIOA DUTEN MUSIKA IKASTEGI PRIBATUEI EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

ARABA

	Zentroko kodea	Kode fiskala	Zentroaren izena	Titularra	Dirulaguntza (euro)
1	010414	10G0114670300	EMPR «Marrate» MEPR	Asoc. Cultural Musical Marrate – Labastida	7.698,00

GIPUZKOA

	Zentroko kodea	Kode fiskala	Zentroaren izena	Titularra	Dirulaguntza (euro)
2	012453	10G2008668200	EMPR «Arrasate Musikal» MEPR	Arrasate Musikal	187.854,00
3	012575	10G2013793100	EMPR «Bergara» MEPR	Bergara Musika Eskola	140.415,00
4	012691	10G2009532900	EMPR «Secundino Esnaola» MEPR	Inst. Musika Ikast. Secundino Esnaola – Zumarraga	127.786,00
5	012283	10B2043931100	EMPR «Ordizia» MEPR	Ordiziako Musika Eskola S.L.	122.934,00
6	012449	10G2014457200	EMPR «Doinua» MEPR	Musika Eskola de Legazpi	117.836,00
7	012407	10G2009207800	EMPR «Juan de Antxieta» MEPR	Musika Eskola Juan de Antxieta – Azpeitia	110.595,00
8	012767	10G2018344800	EMPR «Jose De Azpiazu» MEPR	Oñatiko Musika Eskola Oñati	106.016,00
9	013396	10B2096001900	EMPR «Lazkao Txiki» MEPR	Lazkao Txiki Musika Eskola	104.222,00
10	012775	10G2022221200	EMPR «Onyarbi» MEPR	Hondarribiko Musika Eskola	103.811,00
11	012398	10G2008598100	EMPR «Bizkargi»MEPR	Asoc. Bizkargi – Azkoitia	81.792,00
12	012765	10G2017412400	EMPR «Leizarra» MEPR	Leizarra Musika Eskola	71.495,00
13	013081	10G2050334800	EMPR «Norberto Almandoz» MEPR	Asoc. Norberto Almandoz Musi Eskola – Astigarraga	67.127,00
14	012689	10G2018911400	EMPR «Zumarte» MEPR	Zumarte Usurbilgo Musika Eskola – Usurbil	53.786,00
15	012427	10G2016120400	EMPR «Eskoriatza» MEPR	Beheko Errota Eskoriatzako Musika Elkarte Pribatua	53.361,00
16	012783	10G2032365500	EMPR «Tobera» MEPR	Zegamako Musika Eskola	43.792,00
17	012749	10G2038336000	EMPR «Soraluze» MEPR	Soraluzeko Musika Eskola	36.461,00
18	012912	10G2085449300	EMPR «Ertxiña» MEPR	Zestoako Musika Eskola	34.829,00
19	012937	10B2034379400	EMPR «Ibargain» MEPR	Escuela de Música Ibargain – Oyarzun	27.779,00
20	013377	10G2091674800	EMPR «Ameikutz» MEPR	Ameikutz Musika Eskola – Mendaro	20.837,00
21	012911	10G2047587700	EMPR «Txindata» MEPR	Asoc. Txindata Musika Eskola – Ormaiztegui	13.435,00

BIZKAIA

	Zentroko kodea	Kode fiskala	Zentroaren izena	Titularra	Dirulaguntza (euro)
22	015009	10G4846008300	EMPR «Garamenditar Agustin» MEPR	Musika Eskola de Elorrio	59.486,00
23	015049	10G4866062500	EMPR «Alboka» MEPR	Asoc. Kaltxango Musikal de Ermua	48.235,00
24	015588	10G9544478200	EMPR «Abanto» MEPR	Abantoko Soinulari Elkartea – Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	41.907,00
25	015334	10G4847722800	EMPR «Hala Dzipo» MEPR	Asoc. Cult. Hala Dzipo Barakaldo	28.211,00

UDAL-FINANTZAKETARIK GABE EDO %25ETIK BEHERAKO UDAL-FINANTZAKETAREKIN MUSIKA-IRAKASKUNTZAKO IKASTETXE PRIBATUEI EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

ARABA

	Zentroko kodea	Kode fiskala	Zentroaren izena	Titularra	Dirulaguntza (euro)
1	010253	10G0102630100	EMPR «Udaberria» MEPR	Udaberria Elkartea – Vitoria-Gasteiz	11.644,00
2	010315	10R0100138G00	EMPR «Vedruna» MEPR	HH Carmelitas de la Caridad – Vitoria-Gasteiz	4.505,00
3	010298	2030580669F00	CAEM «Landaluze» OMIB	Estíbaliz Villanueva Campo – Llodio	3.621,00

GIPUZKOA

	Zentroko kodea	Kode fiskala	Zentroaren izena	Titularra	Dirulaguntza (euro)
4	013350	10G2006912600	EMPR «Easo» MEPR	Coro Easo Asociación – Donostia	22.877,00
5	012688	10G2044252100	EMPR «Zurriola» MEPR	Zurriola Musika Eskola – Donostia	17.239,00
6	012769	10G2006114900	EMPR «Jakintza Kultur Elkartea» MEPR	Jakintza Kultur Elkartea – Donostia	16.046,00
7	012935	10B2091855300	EMPR «Aiete» MEPR	Aiete Musika Eskola S.L– Donostia	12.870,00
8	012558	10B2063675900	EMPR «Musikabi San Ignacio» MEPR	Musikabi S.L. – Donostia	10.644,00
9	012496	10A2009036100	EMPR «Academia Arbos» MEPR	Centro de estudios musicales CB – Donostia	7.596,00
10	012687	10E2020770000	EMPR «Axular» MEPR	Axular Musika Eskola CB – Donostia	5.888,00
11	012936	10F2005928300	EMPR «The English School» MEPR	The English School Soc. Coop – Donostia	4.103,00

BIZKAIA

	Zentroko kodea	Kode fiskala	Zentroaren izena	Titularra	Dirulaguntza (euro)
12	014721 015537	10G4813021500	CAPM-EMPR «Sociedad Coral de Bilbao» MIBP-MEPR	Sociedad Coral de Bilbao	41.979,00
13	015274 015275	10F9516666600	CAPM-EMPR «Musikasi» MIBP-MEPR	Musikasi Soc. Coop. – Bilbao	35.588,00
14	014905 015050	10B9579401200	CAPM-EMPR «Bedmar» MIBP-MPR	Bedmar Musica s.L – Bilbao	32.966,00
15	014982 015340	2078869277T00	CAPM-EMPR «Julia Foruria»MIBP-MEPR	Ana María Foruria Lauzirica - Gernika-Lumo	30.305,00
16	015219	10G4899440400	EMPR «Adagio Eskola» MEPR	Asoc. Musical Cult Adagio Eskola – Bilbao	8.221,00
17	015002	10B4846654400	CAEM «Arizgoiti» OMIB	Arizgoiti Musikaltegia S.L – Basauri	6.780,00
18	015008	10B9517468600	CAEM «Larrabetzu»OMIB	Larrabetzu Musika Eskola S.L.– Larrabetzu	2.191,00
19	014979	10B4840006300	CAEM «Liceo Musical Vizcaino»OMIB	Liceo Musical Vizcaino S.L.– Bilbao	1.494,00
20	014980	10B4843698400	CAEM «Loroño»OMIB	Loroño Musikaltegia S.L. - – Bilbao	1.132,00

II. ERANSKINA

MUSIKA IKASTEGI PRIBATUEI UKATUTAKO DIRULAGUNTZEN ZERRENDA

BIZKAIA

	Zentroko kodea	Kode fiskala	Zentroaren izena	Titularra	Ukatzeko arrazoiak
1	015271 015273	10B9516436400	CAPM-EMPR «Artebi» MIBP-MEPR	Pedagogía del Arte S.L.– Bilbao	Ez ditu 5. artikuluan jasotako betekizunak betetzen.